NARRATIBA

# Elurra beltz

**ELURRA SUTAN**
Juan Kruz Igerabide
Alberdania, 2009
202 orrialde. 16 euro

Leire ZUBELDIA




Elurraren bakea eta suaren garra nahasten dira "Elurra sutan" eleberrian. Izenburuak aditzera ematen duen moduan, sinbolismoz eta ideia moralez betetako istorioa kontatu digu Juan Kruz Igerabide adunarrak.

Haur literaturan ibilbide oparoa egin badu ere, helduentzako idatzi duen bigarren eleberria da hau. 2005. urtean argitaratu zuen lehena: "Hauts bihurtu zineten". Trantsizio garaian kokatutako istorioa idatzi zuen orduan. Hain garai labainkor eta nahasian bide baten bila zebiltzan pertsonaiak sortu zituen. Eta istorioak erabat ezberdinak badira ere, bigarren eleberri honek ere badu loturarik lehenengo harekin. "Elurra sutan" eleberrian 1970eko hamarkadan bizi diren pertsonaiak dira ardatz. Trantsizioa ez da desengainu bat besterik izaten ari, galduta daude, eta denak ere ihesbide baten bila dabiltza. Kanpoko giro gatazkatsutik aldendu eta barne bakea aurkitzeko bidaia espiritualari heltzen diote: yogan aurkituko dute heldulekua.

Kandidok borroka armatuan sinesten du, baina ez da inoiz pistola bat eskuetan hartzeko gauza izan. Bilboko yoga zentro batera joaten da. Han ezagutzen du zentroko zuzendaria, yogi zaharra, eta horren semea, Ananda. Yogi zaharra teilatuan meditatzen ari dela hilotz aurkitzen du semeak. Betiko bakea aurkitu duen aitaren ereduari jarraituko dio Anandak, zentroaren gidaritzaren ardura hartuz. Kandidok galduta dabilen arreba, Sara, zentrora eramango du. Eta Sara Anandaz maiteminduko da, eta Ananda Saraz. Elkarrekin urratuko dute yogaren bidea.

Iñigo eta Maritxu dira zentrora inguratzen diren beste bi pertsonaiak. Elkarrekin hazi ziren Araotzeko baserri batean, Iñigoren aitak semea bertan utzi ondoren. Aitak semeari karpeta bat ere utzi zion, 21 urte betetzen zituenean emateko. Bertan, plan baten berri ematen da. Semeak itsu-itsuan aurrera eraman nahi izango du aitaren plana. Puntu honetan sortzen da pertsonaien arteko gatazka.

Iñigo eta Maritxuri haurrak zirela gertatutako anekdota bitxiarekin hasten da istorioa. Baina gero amaierari heltzen dio idazleak. Bukaerako zatitxo bat, erdi pareko beste bat, hasierarako itzulera... Kontaketak ez du denboraren kronologiarik errespetatzen, baina liburua amaitzean, irakurleak ez du arazorik izango desordenaturik kontatutako pasarteak dagokien ordenan jartzeko. Badirudi idazleak nahita sortu nahi izan duela nahaste hori irakurlearengan, bertako pertsonaiak bezala senti daitezen, galduta...

Idazlea amaieratik hasten bada ere, egia azkenera arte gordetzen du. Egia aurkitzeko, bidea egin behar baita. Baina ba al da egiarik? Eta baldin bada, egia bilatu eta zer? Zertarako? Igerabidek idatzitako istorioak ez du esperantzarako zirrikiturik uzten. Errealitatearen alderik negatiboena erakusten du. Elurraren alderik beltzena.

Liburu hau ez da elur bustia, mantsomantso erori eta lurrean geruza sortzen duten elur maluten modukoa da, irakurleari gogoeta egitea eskatzen dion horietakoa. Igerabidek istorioak kontatzeko ahots propioa du. Oso antzekoa egin zait bere lehen nobelako eta esku artean dugun honetako tonua. Bestalde, badirudi Francoren diktadura osteko garaia idazlearentzat obsesio moduko bat dela. Hurrengo obran garai hau gehiago sakonduko ote du? Hurrengo obrarik izango ote da? Izan dadila.

## KALERATU BERRIAK




### TRESCIENTOS AÑOS DE SOLEDAD

**EL LIBRO DE LOS PADRES**
Miklós Vámos
Lumen, 2010
432 páginas. 21,90 euros

Historia de una saga familiar que recorre el devenir de Hungría desde 1705 hasta 1999, a través de las historias particulares de los primogénitos de doce generaciones de una misma familia cuyos varones poseen el don de una memoria prodigiosa. El hilo conductor será un diario, que pasará de vástago en vástago.




### DOS AUTORES DISPARES, REFLEXIONES

**ENEMIGOS PÚBLICOS**
M. Houellebecq y Bernard-Henri Lévy
Anagrama, 2010
320 páginas. 19 euros

Entre enero y julio de 2008, Michel Houellebecq y Bernard-Henri Lévy se intercambiaron los correos electrónicos que componen este libro. Dos autores dispares: un novelista misántropo, autoexiliado en Irlanda; y un filósofo comprometido y *bon vivant.* Un intercambio áspero pero lleno de observaciones agudas.



### LA ÚNICA NOVELA POSIBLE

**FIASCO**
Imre Kertész
Acantilado, 2010
376 páginas. 10 euros

De una comicidad que se balancea entre lo delirante y lo absurdo, en esta novela Imre Kertész dibuja un paisaje de tono kafkiano en el que la realidad y la ficción se entrelazan en un personaje que vive la experiencia de escribir a contracorriente. Segundo título de la trilogía en torno a la «ausencia de destino».




### NACE EL TANGO, NACE EL AMOR

**MARLENE**
Florencia Bonelli
Suma de Letras, 2010
481 páginas. 18 euros

Enero de 1914. La famosa soprano Micaela Urtiaga regresa a Buenos Aires, su ciudad natal, después de años de ausencia. Sin embargo, el remanso que ansiaba hallar entre sus seres queridos se transforma en un torbellino cuando su vida se vincula repentinamente a la de un proxeneta del barrio de La Boca.



**Víctor MORENO**

## Dice Camus

Entre celebrar y conmemorar existe una distinción semántica importante. Celebramos hechos felices; conmemoramos, por el contrario, eventos aciagos, muertes, catástrofes. Por eso, cuando leo que en este mes de enero «celebramos la muerte de Camus hace cuarenta años», tendré que deducir que quien así se expresa habrá abierto una botella de champán francés, para celebrar la desaparición de dicho escritor. Quienes, por el contrario, sí han conmemorado la muerte de Camus, es lógico que se hayan refocilado en recordar a los demás la incomodidad del pensamiento del autor de "El mito de Sísifo" y "El hombre rebelde".

Hacía tiempo que no veía tanto ejercicio público de cinismo. La mayoría de las frases, que estos proxenetas han rescatado del pensamiento de Camus, son la denuncia más clara de su propia actitud.

Cuando Camus afirma que «la función del escritor, por definición, no puede ponerse al servicio de los que hacen la historia; está al servicio de los que la sufren», ¿qué escritor actual podría asegurar que su trabajo cumple con semejante cometido?

Cuando Camus dice que existen «dos compromisos del oficio de escritor: la negativa a mentir sobre lo que sabe y la resistencia a la opresión», ¿qué escritor de los que publican en las grandes cuadras editoriales podría sostener que cumple, al menos, uno de esos compromisos?

Cuando Camus afirma que «las dos responsabilidades que constituyen la grandeza del escritor son el servicio a la verdad y a la libertad», mejor será no preguntarse nada ni pensar en nadie.

Cuando Camus sostiene que «el único artista comprometido es el francotirador, que, sin rechazar el combate, se niega al menos a sumarse a los ejércitos regulares», ¿qué escritor, de los que hoy llenan los suplementos literarios podría asegurar que es un *maverick*, que vive fuera del rebaño y de su disciplina, que es lo que decían de sí mismos Oteiza y Orson Wellles?